

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Bixente Esteibar Azkue Ixkiña

*Zumaia,
Gipuzkoa (1933)*

Aurkibidea



Biografia



Zumaiarra, "Kale berrixan" jaioa (gaur Mari kalea). Emaztea eta gurasoak ere zumaiarrak zituen: aita "Ixkiñatarra" eta ama "Patxi Barranderonekua". 12 urte besterik ez zituela hasi zen arotz lanetan aitarekin. 1958tik aurrera, aita hiltzean, Bixentek eta anaiek hartu zuten 'Esteibar' aroztegiaren ardura. Denetik egiten zuten, baina batez ere itsasontzien barruko lanak. Bere zaletasun handienak traineruak eta harraldeko arrantza izan dira: olagarroak, magurioak, andarikak, ixkirak...

Zintak

ZUM-011

- **Proiektua:** Zumaiako hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2007-08-23
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

Pasarteak

1. Azkuetarrak 'Patxi barranderoanekoak'

- **Erref:** ZUM-011/001
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdota, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak

Laburpena:

<p>Bixente Esteibar Azkue, Ixkiñatarra. Bere aurrekoengandik dator ezizena, baina ez daki nondik datorren. Zumaian ohitura dago familiei ezizenetik deitzeko. Amaren aldeko familia, Azkue abizena dutenak "Patxi barranderoanekoak" dira. Patxi barranderoa ezaguna zen herrian. Patxi barranderoaren inguruko anekdota.</p>

Transkripzioa

- Ba, hoixe, gutxi gorabehera esan dizudana. Ba lehengo kontuak eta...

/>- Heuk galdetuko diak.
- Aspaldiko kontuak nahi ditugu jaso. Hasteko, nahi baldin badezu, arrantzako kontuekin eta hasiko gea? Zu, hasi arrantzan… Bueno, hasteko, izena ta apelliduak eta… esango dizkiazu?
- Izena Bixente…
- Bai. Esteibar…
- Esteibar Azkue.
- Azkue.
- Alias 'Ixkiña'.
- Hori da, ez? Zumaian, e…
- Zumaiko `Ixkiña´. <br />- Zumaian beti `Ixkiña´.
- Bai, bai.
- Eta, nundik dator, edo?
- Jo, nundik datorren hori? Nere aita huan 'Ixkiña', aittona’re 'Ixkiña' huan, ta… hortik aurea, ba, ez jakin. Beti 'Ixkiña'.
- Eta nundik datorren?
- Ez! Ezta, ezta… ametsikan’e ez! Beti 'Ixkiña'.
- Eta hemen, ezizenak eta goitzenak eta…
- Asko! Asko zeon.
- Zumaixan jende guztiyak, ez?
- Bai. Famili danetan zeok, huan bakoitzak bere zeakin, motia o bere zeakin, bai. Bai.
- Eta zuen etxian’e bai, danak 'Ixkiña'.
- Oseake, gu gaitxuk 'ixkiñatarrak'. Bai. Zea partetikan, aittan partetik 'Ixkiñatarrak'. Eta azkuetarrak gaitxuk, berriz, Zumaidxan oso famosuak, 'Patxi barrenderonekuak'. Bai, Xabier ta hauek danok, Abelintxo ta gu danok, haidxek ditzuk beatzi senide, ta haidxek ditzuk –o gaitxuk– 'Patxi barrenderonekuak' amen aldetikan. Oso…
- Aitona, o?
- Aitona huan barrenderua.
- Patxi.
- Patxi barrenderua, Azkue. Oso famosua.
- Saltserua-edo zalako, eo?
- Bai, oseake, zea hauetakua, oseake, kriston ixtoridxak zezkanak.
- Bai, ez?
- Bai, kriston ixtoridxak.
- Asko hitz ein, ta…
- Bai, bai, bai.
- Ipuiak kontau, ta…
- Ipuidxak eta egitekuak’e bai. Egitakuak’e haundiyak zizkan harek. Harek ixtori haundiyak zizkan, ta… Grabatzen ai al haiz? Ez…
- Bai.
- Bai, e?
- Bai!
- Istori bat esango diat. Oseake, zigarrua erretzia gustatzen zikuan. Ta seme bat zikan Deuston. Txoferra huan. Garai hartako, pentsa zak, txoferra huan. Eta beti bokilla eskatzen ziuhan, zigarrua erretzeko bokilla bat. Eta, “Bai, ekarriko dizut”, […], “Ekarriko dizut”. Ta halako batian aittak esan ziuhan: “Ez diat biharrik, e! Manolo [...]–osaba, gure osaba Manolo– Ez diat gehidxo zea. Bazikat bokilla, ear askua, gaiñea, pasuakin, gaiñea”. Ta hik ez zekiat akordauko haizen, lehen itxe danetan eoten hitxuan labatibak. Labatiba ba al dakik zer dan? Oseake, bere zea bat, puestua urena, ta geo llave de pasua bezela eukitzen zian ura regulatzeko. Ta harek in zian, harei muturra kendu eta ahuan sartu! Ta llave de pasuakin. “Ikusten al dek, gaiñea llave de pasua ta bazizkak!”
- […].
- Kriston istoridxak! Hura huan xelebria ziharo! En cambio, beste aittaita ez nian ezautu. Hura huan, zea, 'Ixkiña', hura ez nian ezautu.
- Zumaixarra?
- Bai, Zumaiaarra. Ta hori ez nian ezautu.

2. Iraila ingurua harraldeko garai emankorrena

- **Erref:** ZUM-011/003
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:04:20. **Bukatu:** 00:06:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Olagarroa
- Itsasoa » Arrantza motak » Harraldeko arrantza

Laburpena:

Mutikotan aitarekin hasi zen arrantzan harraldean, lehenbizi lapatan eta gero olagarrotan. Etxe guztietan egoten ziren olagarroak lehortzen, ohikoa zen eta. Irailetik atzera izaten zen olagarrotarako sasoia. Beste edozer harrapatzeko ere harraldeko garai emankorra hori izaten da. Igandetan joaten ziren harraldera, larunbatean lan egiten zuten eta. 12 urterekin hasi zen lanean.

3. "Maulixoen" arrantzaren inguruko kontuak

- **Erref:** ZUM-011/004
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:06:45. **Bukatu:** 00:09:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

<p>Ze ingurutan ibili izan den arrantzan. Berari gehien gustatzen zaion parajea Itzurun ingurua da. "Maulixuak" (karrakelak) harrapatzera nora joaten zen. "Gabarrantza". Udazkena izaten zen garairik emankorrena. Udaberrian andariketan edo "maulixotan" egiten zen, baina azken hau nekosoia izaten zen. "Maulixoen" arrantzaren inguruko azalpenak.</p>

Transkripzioa

<p>- Eta, orduan, harraldera, nora? Beti…
 - Ni hasi nitxuan, estreiña, paolea, Paolaldea, oseake, deitzen zakona Malparaje ta Kato Plaza, ta paraje hoidxetan. Geo hasi nitxuan honea, hondartza, Itzuruna. Ta geo, berriz, asko zeara, Algorritik Sakonetaiño.
 - Eta toki onena zein zan?
 - Nei gehidxena gustau zaitena beti izan dek Itzurungo zea, buelta hau.
 - Itzurungua?
 - Bai. Hasi San Telmo azpitikan, San Telmo… San Telmo, ba, Itzurungo plaiatikan, paoleaiño. Ta geo, zea, zearaldea, Algorritikan hara jutun nitxuan, berriz, asko. Maulidxua badakik zer dan? Karakolak.
 - Bai.
 - Maulidxuak o gabarrantza. Gau-arrantza izaten dek gabian, arrantza. Gabarrantzata beti hara. Bestela egunez beti, hasi paolan hasi nitxuan ta geo honea.
 - Itzurunea.
 - Itzuruna.
 - Eta hori zeaitik? Gabarrantza iteko hobia da?
 - Bai. Oseake, berdiño dek. Hemen dana harri haundidxa dek. Hemen dana harri haundidxa dek eta han askoz’e errezo ibiltzen haiz. Ta arrantzako´re askoz’e aberatso dek hua, berez. Algorritikan hasita, Sakoneta oso aberatsa dek.
 - Eta esan dezu gehienbat udazken partian izaten zala, irailletik aurrea.
 - Bai, arrantzako onena hori dek. Oseake, hemendik aurrea. Hemendik aurrea arrantzako oso ona dek, bai olaarrotako –olaarruak ya haundidxo izaten ditzuk–; ixkira’re ya gora etortzen dek… ta askoz hobia izaten dek arrantza hua.
 - Eta bestela, negu partian eta udaberriyan-eta iten zan edo…;?
 - Udaberridxan o andariketa o bestela maulidxota. Ta maulidxota dek, bastante nekosua izaten dek.
 - Zeba?
 - Dek… Oseake, jutun haix hemendik Sakonetaaiño, ordubeteko birian, eta geo etorridxaz, ba, iten dek, ba, harridxai buelta emanez. Ze, maulidxua, jenealian, eoten dek harri azpitan eoten dek. Errekak-eta nola jeitsitzen dian, ur haren barrenian eoten ditzuk sortak, maulidxuanak.
 /> - Beti sortan?
 - Sortak… bueno, ugaridxo izaten dek. Maulidxo haundi hori-ta, hor arrantzatzen dek hura. Errekan nola jeisten dian, han izaten dek hori. Ta, orduan, in bihar izaten dek harridxai buelta eman. Ta, orduan, ba... Ta bestela, ba, banaka-banaka, billatzen hitxuan bost-sei, o… maulidxo haundi hori, gaiñea. Bai.
 - Eta

nekeza, orduan?
 - Karo! Harriyai buelta ematen ta makurtuta-ta ibili bihar dek eta ez dek zean bezela, olarrutan bezela, kañia sartzen dek ta han billa ibiltzen haiz, baiña han makurtu ta lan asko in bihar izaten dek.
 - Eta hori udaberriyan izaten zan?
 - Hori eoten dek urte guztidxa. Baiña ni juden nitxuan harea udaberridxa juden nitxuan. Oseake, artian olaarruak eta ezer ez zeonian, ba… Bai.</p></div>
<div data-bbox="289 194 826 210" data-label="Section-Header">
<h4>4. "Maulixoen" eta "andariken" arrantzarako tresnak</h4>
</div>
<div data-bbox="328 224 764 270" data-label="List-Group">

• **Erref:** ZUM-011/005
• **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:09:50. **Bukatu:** 00:12:20
• **Multimedia:** bideoa online ikusgai

</div>
<div data-bbox="289 282 364 297" data-label="Section-Header">
<h5>Gaia(k):</h5>
</div>
<div data-bbox="328 309 650 323" data-label="List-Group">

• Itsasoa » Arrantza motak » Gabarrantza

</div>
<div data-bbox="289 335 393 351" data-label="Section-Header">
<h5>Laburpena:</h5>
</div>
<div data-bbox="289 351 881 414" data-label="Text">
<p>Maulixotarako tresna eskua izaten da, baina gako txiki bat ere erabiltzen zuten. Honen inguruko azalpenak; lexikoa. "Txuaskilla" zuloetan egoten den amarra gogorrenetakoa omen da eta arrantzarako erabiltzen zen. Andaririk harrapatzeko erabiltzen ziren tresnak. Andariken arrantza.</p>
</div>
<div data-bbox="289 437 701 455" data-label="Section-Header">
<h4>5. "Gabarrantza"ren inguruko azalpenak</h4>
</div>
<div data-bbox="328 467 764 514" data-label="List-Group">

• **Erref:** ZUM-011/006
• **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:12:20. **Bukatu:** 00:15:15
• **Multimedia:** bideoa online ikusgai

</div>
<div data-bbox="289 525 364 541" data-label="Section-Header">
<h5>Gaia(k):</h5>
</div>
<div data-bbox="328 553 661 583" data-label="List-Group">

• Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Olagarroa
• Itsasoa » Arrantza motak » Gabarrantza

</div>
<div data-bbox="289 595 393 610" data-label="Section-Header">
<h5>Laburpena:</h5>
</div>
<div data-bbox="289 610 879 658" data-label="Text">
<p>Gabarrantzaren inguruko azalpenak. "Gobixak" eta olagarroak harrapatzeko egiten zen batez ere. Arriskutsua eta nekagarria zen. Olagarroak ez dira ezerekin beldurtzen eta norberegana ere etortzen dira.</p>
</div>
<div data-bbox="289 682 710 699" data-label="Section-Header">
<h4>6. Olagarroa "marketan" harrapatzen zen</h4>
</div>
<div data-bbox="328 711 764 758" data-label="List-Group">

• **Erref:** ZUM-011/007
• **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:15:15. **Bukatu:** 00:18:15
• **Multimedia:** bideoa online ikusgai

</div>
<div data-bbox="289 769 364 785" data-label="Section-Header">
<h5>Gaia(k):</h5>
</div>
<div data-bbox="328 796 661 827" data-label="List-Group">

• Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Olagarroa
• Itsasoa » Arrantza motak » Gabarrantza

</div>
<div data-bbox="289 838 393 854" data-label="Section-Header">
<h5>Laburpena:</h5>
</div>
<div data-bbox="289 853 893 950" data-label="Text">
<p>Olagarroak "marketan" harrapatzen ziren. Zumaian beti harrapatu izan da olagarroa eta inguruko herrietan ez zegoenez ohitura hori barre egiten zieten. Lehen etxe guztietan egoten zen olagarroa lehortzen zopa egiteko edo patatekin jateko. Olagarroa nola harrapatzen zen. Trapu zuri bat eta amarra jartzen ziren eta berehala ateratzen zen. Gaur egun amarra galduta dago eta beste arrainen bat erabiltzen da horretarako.</p>
</div>

7. "Ostarren"en inguruko azalpenak

- **Erref:** ZUM-011/008
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:18:15. **Bukatu:** 00:19:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Gabarrantza

Laburpena:

"Ostarrena"ren (erizo) inguruko azalpenak. Zenbaitek jaten zuen arren inguruetan ez zegoen ohitura handirik. Gordinik jaten ziren.

8. Marea biziak eta ilargiaren gorabeherak arrantzarako

- **Erref:** ZUM-011/009
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:19:35. **Bukatu:** 00:21:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Gabarrantza
- Itsasoa » Sineskerak, ohiturak eta erritoak

Laburpena:

<p>Marea behean zegoenean arrantza egin behar izaten zen. Ilargiaren gorabeherak. Iraileko marea biziei "San Migel urak deitzen zitzaien".</p>

Transkripzioa

- Eta bestela, hauek guztiok harrapatzeko, marea behian...
- Bai, hauek danak dia maria behekuak.
- Eta igual illargiyak, e...
- Illargidxa bakik nola izaten dan. Oseake, hamabostian behin izaten ditzuk illargidxak, ta jenealian, jenealian ez, beti, arrantzako asuntuan eguardiko izaten dek. O eguardidxan o gabeko hamabitan, "maria punta" esaten zakona. [...] gaur eguardidxan, gaur, hamabitan dek plemaa, oseake, seiñale illargidxa, ba, hemendik sei egunea izango dala.
- Eta orduan horrek, setienbreko mariak [...] ...
- Ba, setienbrekok izaten ditzuk, ba, karo, setienbreko mariak izaten ditzuk, maria haundidxak izaten ditzuk batzuek. San Mielgo urak izaten ditzuk, San Migelko urak. Ta hura, zearako, [agorreirako] ta oso ona dek. En kanbio, haitz haundirako ta txarra dek. Iten dek, dana goortu iten dek.
- A! Karo! [...]
- Ta, dana gogortzen dek eta orduan, galduta ibiltzen haiz. Ez zekit... Oseake, hasieran oso ondo... [...] ixkireta juten haiz, ta ura [...] datorren bezela, ixkira're goitik behera etortzen dek. Ta ordu betian earki ingo dek. Geo handikan ze? Handikan hamar metroa jun ta, "¡Ay va dios! Nere salabarduak eta nun daude?", danak lurrian. Bai.
- Eta martxuan bardiña pasatuko zan, ez?
- Martxun?
- Martxuan.
- Hori beti gertatzen dek, baiño maria haundinak hoidxek izaten ditzuk.
- Setienbrian [...] ...
- Setienbrekuak, bai. Bai, bai.

9. Ostegun eta Ostiral Santu Egunetan familia osoak lapatan

- **Erref:** ZUM-011/010
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:21:15. **Bukatu:** 00:23:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Harraldeko arrantza
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua

Laburpena:

<p>Urte guztian egiten zen lapatan, baina Ostegun eta Ostiral Santu Egunetan familia osoak joaten ziren lapatara. Era askotara jan daitezke lapak: gordinik, limoiarekin, labean eginda... Aldea egoten da goian jasotako lapatik behean jasotakora.</p>

Transkripzioa

- Eta martxukua aprobeztatzen zan, ez dakit ba, lapatako…
- Bai, hemen lapetako urte guztidxa, lapetako urte guztidxa. Oain, geo izaten hitxuan, bai, lapetako horrela egunik zeanak bi izaten hitxuan: Ostegun Santu Eguna ta Ostiral Santu Eguna. Hoidxek izaten hitxuan ya kuadrillak eta familidxak eta…
- Lapa-jana.
- Lapa-batzea’re bai, e! Lapa-janak eta lapa-batzia’re bai.
- Eta hori da illargixa behe-behian dagolako?
- Ez, ez. Lapeta nahi dekenian. Lapeta nahi dekenian. Lapeta... lapa eoten dek goidxan eoten dek. Ta hara jun leike eozein, eozein egunetan. Nahi badek goizian o nahi badek arratsaldian. Eozein egunetan lapeta.
- Garizuma ta […] …
- Garizumetan ta hor izaten dek ohitura bat, ohitura bat, ba…
- Ostiral Santuan ezin, e…
- Ohitura bat izaten dek hori Zumaidxan, e!, lapa batzia ta lapa jatia.
- Eta nola jaten dia lapak? Nola jaten zian?
- Lapak postura askotan. Gordiñik’e bai! Beste batzuek limoia botata’re bai. Beste batzuek labian’e bai. Beste batzuek ogi-errallauta botata’re bai. Perejil pixkatekin’e bai. Postura askotan lapa. Ta lapak munduan danik gauzaik goxuenak, bai! Zumaidxan makiña batek paatuko likik ointxen’e. Oseake, hik lapa kilo bat ekarri, ta harek kilo bat txuleta paauko likik. Bai! Oaintxen’e bai hori. Ta lapa han zioke, jun ta batzia. Baiño... Han gerridxa ibili in bihar dik. Ta geo lapetik lapea alderdi haundidxa eoten dek. Goiko lapak, gaiñekuak jaso o behekuak jaso.
- Behekuak […]?
- Gauza danak bezela. Gauza zailla beti…

10. "Maulixoen" inguruko azalpenak

- **Erref:** ZUM-011/011
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:23:10. **Bukatu:** 00:24:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Gabarrantza

Laburpena:

"Maulixoen" arrantzaren inguruko azalpenak. "Maulixoak" egosita jaten ziren.

11. Arrantzarako leku onak

- **Erref:** ZUM-011/012
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:24:20. **Bukatu:** 00:26:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Harraldeko arrantza
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsaspeko geografia

Laburpena:

Harraldean denetarik harrapatzen zen, baita txibiak ere. Maiatza-ekaina aldean zentolloak harrapatzen ziren, baina gero guztiz galdu zen. Zentolloak eta ixkirak arrasteroak hasi zirenean galdu ziren. Balezulo inguruan egoten ziren ixkira ugari. Lanpernatarako paraje egokia "Malparaje" deiturikoa izaten zen. Hala ere, paraje arriskutsua zen.

12. Orain ez dago ontzirik, baina lehen bai

- **Erref:** ZUM-011/016
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:30:20. **Bukatu:** 00:31:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza

Laburpena:

Lehen antxoa kostaraino etortzen zen eta motor txikiekin bertan kostan arrantza egiten zen. "Malla" deitzen zitzaion. Horretaz aparte Zumaian arrantzarako ontzirik ez zegoen lehenago.

Transkripzioa

- Eta orduan hamen Zumaixan gehienbat harraldekua izango zan, ez? Ya itsasuan-eta gutxio, ez?
- Itsasuan oain asko!
- Lehen, lehen. Lehen itsasontzietan ta, ba, antxua ta, Getaixan dan bezain…
- Bai, bai, bai, bai. Hori bai. Nik antxuatan hemen… baiño urte asko ditzuk. Motor txikiyak. Lehen antxua etortzen huan kostaiño etortzen huan lehen, garai batian. Ta hori huan "malla", deitzen zikuan horri, "malla". [Ta hor...] oaingo... Jesus! Oaingo motorrak harrapatuko balittuzke, haidxek bakaillaota jungo hitxuan. Antxoata ez, bakaillaota jungo hitxuan. Antxua etortzen huan, ba, motor txikidxak bere sariakin. Ta ekarriko ziztien, ba, ze esango diat ba? berrogei arrua-ta esaten zitien ta. Ta berrogei arrua izango ditzuk, ba... arrua zenbat da? Hamabi kilo o zenbat zan arrua? Bai, bai. Ta berrogei arrua ta, berrogeita hamar arrua ta. Gutxi, baiño... bertan.
- Bertan kostan?
- Bertan, bertan, bai. Bertan izaten huan. Ta geo, oain dala, ze esango diat, zortzi urte arten-edo, barku bakarra eon dek hemen, zea, San Telmo, Glorioso San Telmo. Ta geo, hortikan aparte, ba oain, txibitako bai, txibitako-ta kantidadia zio. Ta zeatako´re bai, atunetako´re bai, baiña "de recreo" esaten dan bezela.
- Bai. Baiña arrantza holan, e…
- Arrantzako iñor ez.
- Baporiak eta?
- Ez, ez. Ez.

13. Aitarekin hasi zen arotz-lanetan

- **Erref:** ZUM-011/017
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:31:40. **Bukatu:** 00:35:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Bera arotza da eta barku handietako arotz-lanak egin izan ditu: zubiak, kamaroteak. Aita ere arotza zen eta beste lan batzuk egin ostean sozio batekin hasi zen arotz-lanetan. Ze baldintzatan lan egiten zuten. Sozioarekin banatu eta Bizente eta anaia aitarekin hasi ziren lanean. Hasieran denetariko lanak egiten zituzten, bai lehorrean eta bai barkuetan. Aitari ez zitzaizkion asko gustatzen barkuetako lana dirurik ez eta nekez ordaintzen zutelako, baina berari hori gustatzen zitzaion eta aita uztean hortara bideratu zen.

Transkripzioa

- Nere ofizidua, ni arotza izan nauk. Ta nere ofizidua beti izan dek arrantzako ontziduxak barruko lanak iten. Bai arrantzakuak, ta kargeruak; e bai, barku haundiduxak. Ehun metro. Hamen Zumaian [in gitian] barku batzuek, ez zekit, zortzi o beatzi, beatzi, larogeita hamasei metrokuak. Bai; a hoidxek ditzuk kargeruak. Ta gure ofizidua horixe izan dek beti. Zea, barkuko barruko lanak: kamarotiak eta puentiak eta zubiak eta zea danak, [...] eta.
- Hori; re pixkat kontatu [bihar diazu], arotz-kontuak eta; Hasteko, nola, nola hasi zi; an, familiako kontua zan? Edo, nola hasi zi; an arotz;
- Bai. Bai, bai, bai. Oseake, nere aitten bittartez. Nere aitta huan sozidxo beste batekin. Ta, esaten diat ba, oseake gure aitta etorri huan, Madriden-ta ibili huan, txatarrero-ta ibili huan. Berez arotza huan. Madridetik etorri huan ta sozidxo jarri huan beste batekin. Ta orduan itxeko indarra bihar izaten huan eozar gauzatako. Zea; e ez ziu, argi; e ez ziu. Gabeko hamabitan ta hasten hitxuan lanian indarra aprobetxatzeko. Ta... eske ditzuk ixtori batzuek... ezin leike esplikatu! Postura hartan lan itia, nola in zeikien lan hoidxek!
- Gaur egungo jentia ezin sinistu.
- Ez zio sinisteikan. Oseake, [gabeko] gauzak. Orduan, gai; ea, hitxuan indarrak hemenguak! Zufiria ta; bertakuak. Orduan ez [huan] Iberduero ta, bertako indar txikiduxak hitxuan. Ta [pentsa] zak, kristalak zeakin peatu, papelakin o, ez argi pasatzeko ta gabian lana iteko. Ta makina bat soi; u ateako zien, ba, nik ez zekit ze mentalidade zan orduan! Ta gabian indar pixkat bazeola ta, gabeko hamabitatik eta ordu biduxak arte, ta hantxe, makinetan, [aprobetxa;]
- Lanian.
- Lanian. Bai; a hori aittak eta?
- Hori aittakin. Aitta gazteik hil huan. Aitta hil huan cincuenta y ocho. Geo hil huan; Bueno, orduako, cincuenta y cincon, soziduxakin apartau in huan. Ni Zarautza jun nitxuan cincuenta y tresian. Cincuenta y cincon etorri nitxuan marinatik Ferroldikan, eta aittakin, normala. Aurreko beste anai gaztia Xebastian; e hasi huan. Hura; re, ez zekit, hamabi urtekin o noix hasi zan lanian, ni Zarautzen neon bitartian. Ta itxeko indarrakin hasi gitxuan. Ta, ba, danetikan. Arotza, orduan, arotza arotza-arotza gitxuan. Oaintxe teillatura jungo gitxuan, barruko lanak ingo [gitian], o soto hondoko lanak [ingo gitian]. Eozein lan!
- Lurrekua, itsasokua;
- Lurrekua, itsasua; Dana! Aplikatzen zana! Ez huan, uain

bezelako zeaik ez huan, ziri-miriik ez huan laneako're. Orduan neguan-ta askotan, ba, lanik gabe ta. Orduan […] konserbako're lan asko iten giñian, konserbako… Orduan, ba, salazoiko tapak eta holako lan asko iten giñian. Ta geo, ba, gure aitta ez huan zea, barkuan asuntuan-ta lana iteko zea ez huan. Hortxe hasi hitxuan, oain biberua deitzen zakoen, atunetako biberuak eta, hasi hitxuan barrikak, barrikak izaten hitxuan [bukoiakin] ta. Biberuak bukoia-kin-ta iten hitxuan. Ta gure aitta ez huan bat´e… Han sartu zan zea, paatzen txarrak hitxuan ba!
- Bai?
- Karo! Ordun makinak eta, armadoriak oso-oso zea…
- Diruik ez?
- Diruik ez ta gaizki ibiltzen hitxuan. En kanbio, nei beti gustatu izan [zaia], itsasoko asunto hori.
- Itsasokua.
- Bai. Ta aitta, ya geure kasa hasi giñanian, ba, ni poliki-poliki hor sartu nitxuan.

14. 12 urterekin hasi zen arotz-lanetan aitarekin

- **Erref:** ZUM-011/018
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:35:20. **Bukatu:** 00:38:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

Laburpena:

12 urterekin hasi zen lanean aitari laguntzen. Dena eskuz egiten zen. Lehenbizi erremintak zorrozten ikasten zen eta gero edozertan laguntzen. Denetariko lanak egiten zituzten, bai barkuetan eta bai lehorrean. Altxariak ere egiten zituzten. Aita gazterik hil zen eta hiru anai ibili ziren gero arotzeria lanetan.

15. Zumaian egindako barkuetan lan egin izan du beti

- **Erref:** ZUM-011/020
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:39:25. **Bukatu:** 00:42:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

Laburpena:

Barku handietan egiten ziren arotz-lanak. Egin izan ditu 96 metroko barkuak ere. Berak beti Zumaian lan egin izan du, bertan egindako barkuetan bakarrik lan egin izan du. Barku asko egiten zen Zumaian. Astillero inportanteenak: Galarraga eta "Santixo" sozioak, Zacariasenekoak... Horiek barkuak egiten zituzten eta beraiek barkuko lana.

Transkripzioa

- Eta barkuetan ze lan izaten zan? Barko haundietan eta?
- Barko haunditan? Ba, zenbat kamarote, zenbat... Bueno!
- Ohiak eta?
- Dana. […] forratzia. Forratzia lan haundidxa izaten huan. Hori dana orduan garai batian iten giñian dana zeakin, formikakin, dana, garai batian. Ta lana, baiña bildurgarri izaten huan, e!
- Bai.

Esan dezu larogeita hamar bat metrotik gorako barkuak ziala, ez, batzuk?

- Larogei ta hamasei. Sota ta zeakuak, Sota ta bestiak hitxuan, zea, Uralar.
- Bilboko…
- Bai, danak Bilbokuak hitxuan hoidxek. Ta geo azkenian [in gitxian] barkuak hitxuan, berriz, zearako, zea izaten dia ba, esto… petrolidxua ateatzen-ta ibiltzen hitxuan Mar del Norten ta… Ta haidxentzako konbustibliak eramane ta salbamentoako ta tipo hortako barkuak. Hoidxek ya barko zeak hitxuan ya, barku modernuak. Ya orduako ya dana alduta ziuane.
- Eta zuen lana, behintzat hasieran, nun izaten zan? Zumaidxan bertan?
- Beti Zumaidxan.
- Beti.
- Askotan deitu zien, bat Oridxoa o bestea o kristua, hara. Sekula ez gaitxuk moitu Zumaitikan.
- Eta larogeita hamar metroko barkuak bertara ekartzen zian?
- Ez, bertan iten... bertan iten hitxuan.
- A!
- Oseake Zumaian indako barkuak.
- Orduan ez zian Bilbon indakuak?
- Ez, ez, ez, Zumaian indakuak.
- Bilboko konpaiñia, baiña Zumaian indakuak.
- Nik Zumaian indako barkuak bakarrik in dixkiat. Baiña asko ordia! Igual Uralar beak’e, ze, hogeita gehidxo barko in zitian.
- Zeintzuk zian hemen astillero holan, e, inportantienak?
- Orduan hitxuan hemen, oseake astillero inportantienak hitxuan […], hoidxek hitxuan Galarraga ta.
- Izenak esango dizkiazu?
- Hitxuan Probes Galarraga, ta zea, Santidxo, hitxuan sozidxuak. Geo hitxuan bestiak Zacariasenekuak. Hoidxek hitxuan Arrizabalaga... Arrizabalaga... ta geo bestia, nola zuan sozidxua? Ta geo hitxuan bestiak Egaña… Egaña-Aperribai. Andrian... andrian aitta ta. Hoidxek. Andrian aitta ta zeak hitxuan, barkua itten zitien, egurrezko barkuak.
- Eta hauek zian inportantienak Zumaian?
- Bai. Hoidxek ya iten zien barkuak.
- Barkuak.
- Geo guk iten [genixkien] barkuak, barruko lanak.
- Eta…
- Ta geo Balenciaga, noski. Balenciaga izan dek beti. Ta lehen-lehendikan bahitxuan berriz, ba, hoidxek zea, barku txikidxak-ta iten hitxuan Unanuek eta […] askoek, askoek. […] eta, askoek.

16. Barkuak Zumaian muntatu eta beste herri batzuetara

- **Erref:** ZUM-011/021
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:42:25. **Bukatu:** 00:44:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

Laburpena:

<p>Zumaian beti egin izan dira arrantzarekin lotutako gaiak. Lehenago kalderak egiten ziren eta haien ostean baita barkuetarako motorrak ere (Yeregi, Unanue, Juaristi...). Aurrekoek egiten zituzten kupelak eta arrantzarako bestelako tresnak, baina berak ez du horrelakorik ezagutu. Barkuak ilaran egoten ziren Zumaian, muntatzeko zain, beste herri batzuetara eramateko (Getaria, Orrio, Mutriku...). Itsasontzien kaskoak kanpotik ere ekartzen ziren muntatzeko.</p>

17. Kalderaren inguruko lanak nola egiten ziren

- **Erref:** ZUM-011/022
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:44:45. **Bukatu:** 00:46:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

Laburpena:

Lanak asko aldatzen joan dira, erremintetatik hasita. Errematxe-lanak nola egiten ziren. Kalderen inguruko lanak nolakoak izaten ziren; zortzi lagun porrarekin kolpeka aritzen ziren forma ematen eta "Kapaia" deitzen zitzaion.

18. Arotzeriako erreminten izenak eta erabilera

- **Erref:** ZUM-011/024
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:47:20. **Bukatu:** 00:49:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Eskuko erremintak erabiltzen ziren lanerako arotzerian: garlopak, zerrotea, zepiloa... Erreminten izenak eta zertarako erabiltzen zen bakoitza.

19. Etxeak egitea langintza neketsu eta arriskutsua

- **Erref:** ZUM-011/025
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:49:00. **Bukatu:** 00:51:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Barkuetan lan egiten zuten, baina baita lehorrean ere. Etxeak ere egin izan ditu. Bera aitarekin lanean zebilenean egurrezko etxeak egiten ziren. Lan neketsu eta arriskutsua zen, dena eskuz egiten zuten eta.

20. Baserritarrek egiten zituzten baserriko tresnak

- **Erref:** ZUM-011/027
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:51:40. **Bukatu:** 00:52:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Baserriko tresnarik gutxitan egin izan du. Herrian bazen halako lanak egiten zituen baserrietako jendea. Baserritarrek beraiek botatako egurrearekin lan egiten zuten eta egurra botatzeko garaia ere zaintzen zuten.

21. Lan bakoitzerako ze egur-mota erabiltzen zen

- **Erref:** ZUM-011/028
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:52:30. **Bukatu:** 00:56:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Behar zuten egurra almazenetik ekartzen zuten Lasartetik. Bertako haritza oso ona zen, baina ez zen lehorra izaten eta lehorra behar izaten zuten lanerako. Pagoa eta makala (chopo) erabili izan zituzten asko kontserba-fabrikako kaxak egiteko, egur garbiak zirelako. Barkuetan "sapeli" (sapele, egur gorriska) erabiltzen zen, baina behin pagoa erabiltzen hasi ziren eta harrez gero beti pagoa (argiagoo). Etxeen teilatuetarako haritza erabiltzen zen, baina gaztaina zen onena. Egur-moten inguruko azalpenak.

22. Herrikoen artean erronkak arraunean

- **Erref:** ZUM-011/029
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:56:10. **Bukatu:** 00:58:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak

Laburpena:

Arraunerako zaletasuna izan du eta herri-mailan aritzen zen, baina aitzak ez zion uzten. Euren garaian arrauna edo pilota, ez zegoen beste aukerarik, eta berari arrauna gustatzen zitzaion. Herrikoen artean erronkak izaten zituzten. Egun guztia lanean pasatzen zuten eta ez zuten entrenatzeko astirik izaten. Jaietan lehiaketa antolatzen zen. Bateletan aritzen ziren.

23. Zapata-kaxan bazkaria hartuta Donostiara estropadetara

- **Erref:** ZUM-011/030
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:58:30. **Bukatu:** 01:01:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak

Laburpena:

Berak betidanik izan du arraunerako eta estropadetarako zaletasuna. 11 urtera artean aitarekin eta gero lagunekin joaten zen Donostiara, orduan han bakarrik izaten ziren estropadak eta. Zapata-kaxan bazkaria hartu eta trenez joaten ziren. Estropadaren ostean zirkora joaten ziren. Estropadetan onenak Pedreña, Orio, Hondarribia eta San Juan izaten ziren. Zumaiak nahikoa lan izaten zuen Zarautzen aurretik geratzen.

24. 14 urtetik atzera traineruarekin laguntzen

- **Erref:** ZUM-011/031

- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 01:01:10. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak

Laburpena:

14 urtetik aurrera "triñauarekin" (trainerarekin) laguntzera joaten zen bera. Beltzak izaten ziren ontziak eta hauts batez egindako masa bat ematen zitzaaien ontziei briloa ateratzeko. Garai hartan trainera ez zen arranplatik irteten, hiru lagunen artean eramaten zen itsasora, eta berdin estropada bukatzean.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-01-05

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com